

GREMIO
DE EDITORES
DE EUSKADI



EUSKADIKO
EDITOREEN
ELKARTEA

CONECTA 
RESEARCH & CONSULTING · BUSINESS SOLUTIONS

EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO VI. TXOSTENA (2010)

Norentzat egina:

Euskadiko Editoreen Elkarte

Babeslea:



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

EDUKIEN AURKIBIDEA

Sarrera	6
Metodologia	7
EREMUA	7
INFORMAZIOAREN BILKETA	7
ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA	7
AZALPENAK	8
AZTERKETAREN FITXA TEKNIKOA	9
Argitalpen Sektorea, Oro Har	10
Argitalpen Pribatua Euskaraz	12
ARGITALPEN PRODUKZIOA	12
Euskaraz argitaratutako izenburuak, kopuru tarteak	14
Guztira (%)	14
Argitaletxe kopurua, guztira	14
Argitaletxe publikoak.....	14
Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta. Euskadiko argitaletxeak .	15
Argitalpen produkzioa, sailen arabera	16
Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera	20
Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera	23
Katalogoko izenburuak	25
Katalogoko izenburuak, sailen arabera	25
Merkaturatzea	29
2010EKO FAKTURAZIOA	29
Fakturazioaren zenbatekoa, sailen arabera	29
Fakturazioa sailez sail, jatorriaren arabera.....	32
Liburuak merkaturatzeko bideak	33
Batez besteko prezioak eta saldutako aleak	36
Unibertsitateaz Kanpoko Testuak, Euskaraz	38
Beste Datu Batzuk	43
ENPLEGUA.....	43
EGILE ESKUBIDEAK	43
ITZULTZEAK	44
Argitalpen Publikoa Euskaraz	45
Laburpena	47
SAILEN ARABERAKO BANAKETARI BURUZ AIPATU BEHARREKO ALDERDIAK.....	50
ZEHAZTAPEN METODOLOGIKOAK	53

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA.- UNIBERTSOA ETA LAGINA	9
2. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATZEN DUTEN ARGITALETXEAK	10
3. TAULA.- 2010EKO EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO DATU OROKORRAK	11
4. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO DATU OROKORRAK	12
5. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA BATEZ BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA	13
6. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK	14
7. TAULA.- ARGITALETXE KOPURUA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE.....	15
8. TAULA.- EUSKARAZKO IZENBURUEN ARGITALPENA, SAILEN ARABERA, 2010EAN. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	17
9. TAULA. IZENBURUAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA	19
10. TAULA.- 2010EAN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILEN ARABERA (MILAKOTAN), ARGITALETXE PRIBATUAK.....	20
11. TAULA.- ALEAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA	22
12. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2010EAN. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	23
13. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA.....	24
14. TAULA.- KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, 2010EAN. ARGITALETXE PRIBATUAK	25
15. TAULA.- KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2010EAN. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	26
16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA	27
17. TAULA.- EUSKRAZKO FAKTURAZIOA 2010EAN. ARGITALETXE PRIBATUAK	29
18. TAULA.- EUSKRAZKO FAKTURAZIOA 2010EAN, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK	29
19. TAULA.- FAKTURAZIOA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA	31
20. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA, 2010EAN, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	33
21. TAULA.- FAKTURAZIOA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA.....	34
22. TAULA.- SALDUTAKO ALEAK. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA.....	36
23. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, SALDUTAKO ALEEN ETA FAKTURAZIOAREN ARTEKO HARREMANA.....	36
24. TAULA.- EAE, NFE, IPAR EH ETA BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN PARTE HARTZEA, HAINBAT MAGNITUDETAN	37
25. TAULA.- 2010EAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IZENBURUAK.....	38
26. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA.....	38
27. TAULA.- 2010EAN ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN ALEAK (MILAKOTAN).....	39

26. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO ALEAK (X 1.000). 2009. URTEAREKIKO BILAKAERA	39
29. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, 2010EAN	40
30. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA	40
31. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN IZENBURU BIZIAK, 2010EAN	41
32. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN IZENBURU BIZIAK. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA	41
33. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOA, 2010EAN	42
34. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA	42
35. TAULA. NOMINAPEKO LANGILEEN KOPURUA. ENPRESA PRIBATUAK	43
36. TAULA.- ESKUBIDEAK EROSTEKO EGINDAKO ORDAINKETEN ESTIMAZIOA.....	44
37. TAULA.- ERAKUNDE PUBLIKOEN ARGITALPENEN BALIOEN BANAKETA, SAILEN ARABERA	46
38. TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK.....	47
39. TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. % BERTIKALAK	47
40. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENAREN RATIO NAGUSIAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA.....	48
41. TAULA.- EUSKARAZKO LIBURUEN ARGITALPENAREN ETA FAKTURAZIOAREN DATU NAGUSIAK, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	49
42. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO IZENBURUEN DATUEN ARTEKO ALDERAKETA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)	50
43. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO ALEEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK).....	51
44. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPEN BIZIEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKOEN DATUEN ARTEKO ALDERAKETA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)	51
45. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN NAHIZ FRANTZIAN LORTUTAKOAREN DATUEN ARTEKO ALDERAKETA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)	51
46. TAULA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUAK SAILEN EHUNEKOAK, HAINBAT HIZKUNTZATAN, AZTERTUTAKO MAGNITUDEEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK).....	52

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN TIPOLOGIA	10
2. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN EHUNEKOA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA	15
3. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN).....	19
4. GRAFIKOA.- ARGITALETXE PRIBATUEK SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)	22
5. GRAFIKOA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN. JATORRIAREN ARABERA (%-TAN).....	28
6. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN)	32
7. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN).....	35
8. GRAFIKOA.- LORTUTAKO BALIOAK ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. (% BERTIKALAK).....	48
9. GRAFIKOA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUAK SAILEN ARGITALPENA ETA FAKTURAZIOA, AZTERTUTAKO HIZKUNTZETAN (%-TAN)	52

SARRERA

Txosten hau, euskarazko argitalpenei buruzko seigarren txostena da, 2010. urteari dagokiona. 2005az geroztik, Euskadiko Editoreen Elkarteak euskarazko argitalpenei buruzko azterketa egiten du, urtero, Euskal Autonomia Erkidegoan euskaraz argitaratzen diren lanen datuei beste autonomia erkidego batzuetan eta Ipar Euskal Herrian argitaratzen direnenak gehituta. Zeregin horren ardura CONECTA Research & Consulting enpresak dauka.

Azterketa egiteko, euskarazko liburuen produkzioari, eskaintzari eta fakturazioari buruzko datuak bildu ditugu, lurralde osoa aintzat hartuta; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Frantziako estatuko (Ipar Euskal Herriko) produkzioa bildu dira. Horrez gainera, badira hainbat argitaletxe, egoitza lurralde horietatik kanpo duten arren, euskarazko lanak argitaratzen dituztenak, eta horiek ere kontuan hartu ditugu.

Bestalde, euskarazko argitalpenak plazaratzen dituzten Administrazio Publikoko erakundeen eta haren mendeko entitateen datuak ere bildu ditugu.

Azkenik, esker ona adierazi nahi diegu, eman diguten laguntzagarrik, Euskadiko Editoreen Elkarteari, Conecta enpresak bidalitako galdeketari erantzun dioten enpresei eta Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioari, horiei esker egin ahal izan baitugu ikerlan hau.

METODOLOGIA

EREMUA

Ikerketa honen azterketa eremua **euskarazko liburuen argitalpena da**, eta honako enpresa edo erakunde mota hauek hartu ditugu kontuan ikerketa egiteko:

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) argitaletxe pribatuak. Elkarteen eta fundazioen argitalpen zerbitzuak ere sartu ditugu kategoria horren barruan.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) argitaletxe pribatuak.
- Ipar Euskal Herriko argitaletxeak (Ipar EH).
- Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeak (Beste AE batzuk).
- Erakunde publikoak (EP).

Horiek guztiak 2010. urtean argitalpenaren eremuan barne merkatuan jardun zuten argitaletxeak, enpresak edo erakundeak dira.

INFORMAZIOAREN BILKETA

Honako prozedura hauei jarraitu diegu:

- Euskadiko enpresa pribatuei buruzko informazioa erabili dugu, 2010eko Euskal Autonomia Erkidegoko liburuaren barne merkataritzaren txostenean bildua.
- Gainera, galdetegi egituratu bat erabili dugu Euskal Herritik kanpoko argitalpen enpresa pribatuen datuak biltzeko. Posta elektronikoz igorri diegu.
- Bestalde, erakunde publikoei buruzko informazioa bildu dugu, telefono bidezko galdeketa baten bidez.
- ISBN datu basea ere erabili dugu.

ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA

Txosten honetan, euskarazko argitalpenei buruzko datu orokorrak aditzera emango ditugu, lehendabizi: eragile argitaratzaileei eta argitaratutako izenburuei buruzkoak, hain zuzen. Ondoren, argitalpen pribatuei buruzko datuak zehatz-mehatz aztertuko ditugu (Euskadi, Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta gainerako autonomia erkidegoak kontuan hartuta). Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko liburuaren barne merkataritzari buruzko txostenean dago jasota, baina txosten honetan, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko datuak eta euskarazko lanak argitaratzen dituzten gainerako autonomia erkidegoetako argitaletxe pribatuenak erantsi dizkiogu informazio horri.

Ondoren, erakunde publikoen argitalpenei buruzko informazioa eskainiko dugu. Dena dela, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko barne merkataritzaren urteko txostenaren barruan Euskadiko unibertsitate publikoak ere sartzen direla, eta, beraz, horiei buruzko datuak ez dira atal horretan sartuko, argitalpen pribatuen atalean baizik.

AZALPENAK

Azterketan, euskaraz argitaratutako lanei buruzko galderak egin ditugu.

Azterketa honen emaitzetan agertzen diren argitaratutako lanen kopuruaren eta ISBNan (ISBN datu basea edo Liburuaren Espainiar Argitalpenaren Panoramika) 2010ean erregistratutako liburuaren kopuruaren artean dauden aldeak erraz azal daitezke, gure ustez: berrargitaratutako lanak dira, argitaratzaile berak argitaratuak, baina aldaketarik izan ez dutenez, ez da horientzat ISBN zenbaki berririk eskatu.

AZTERKETAREN FITXA TEKNIKOA

Lanaren egilea: CONECTA Research & Consulting.

Unibertsoa: ISBNko datuen arabera, 2010. urtean 132 argitaletzek argitaratu zituzten lanak euskaraz. Ipar Euskal Herriko 7 argitaletxe gehitu behar zaizkie horiei.

Laginaren tamaina: 68 argitaletxe pribatuk erantzun diote galdeketari, hau da, argitaletxe pribatuen unibertsoaren % 60,2k. Beste autonomia erkidegoetatik lortutako erantzunari dagokionez, euskarazko izenburu gehien dituzten argitaletxeen % 31,3k erantzun diote galdeketari. Horien garrantzia kontuan hartuta, talde horrek duen euskarazko fakturazioaren adierazgarritzat jotzen dugu.

Argitaletxe pribatuen % 60,2ren eta erakunde publikoen % 19,2ren erantzunak bildu dira guztira. Galdeketari erantzun ez dieten argitaletxeei buruzko informazioa bigarren mailako datuetatik jaso dugu.

I. TAULA.- UNIBERTSOA ETA LAGINA

	Unibertsoa	Lagina	Laginaren %
EAE	66	49	74,2
NFE	8	2	25,0
Ipar EH	7	7	100,0
Beste AE batzuk	32	10	31,3
Argitaletxe pribatuak, guztira	113	68	60,2
EP	26	5	19,2
Guztira	139	73	52,5

Galdeketa mota: egituratua.

Aplikazioa: norberak betea.

Landa lanerako datak: 2011ko iraila/urria, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxe pribatuei, argitaletxe publikoei eta Ipar Euskal Herriko argitaletxeei dagokienez. Euskadiko argitaletxe pribatuei buruzko datuak 2011ko martxoaren 15a eta urriaren 27a bitartean lortu genituen.


Taulan jartzea: Datuak Conecta Research & Consulting enpresan grabatu eta taulan jarri dira.

ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR

Espanian eta Frantzia, 2010. urtean, 139 enpresak argitaratu zituzten lanak euskaraz. Enpresa horien tipologia eta kokapen geografikoa kontuan hartuta, honela banatzen dira:

- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)¹ duten 68 argitaletxe pribatu (Euskadiko barne merkataritzari buruzko ikerketaren bitartez aztertu direnak). Talde horretan sartzen dira Euskadiko Editoreen Elkartean bildutako argitaletxeak nahiz horren barruan egon ez arren 2010. urtean argitalpen sektorean jardun zuten erkidego horretako argitaletxeak.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) 6* argitaletxe pribatu.
- Frantziako 7 argitaletxe pribatu (Ipar Euskal Herria).
- Egoitza nagusia beste autonomia erkidego batean (beste AE batzuk) duten 32 argitaletxe pribatu.
- Argitalpen zerbitzua duten 26 erakunde publiko (EP). Horiek izendatzeko eragile argitaratzaile hitza erabiltzea komeni da, erakunde horien jardura nagusia ez baita argitalpena.

I. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN TIPOLOGIA



2. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATZEN DUTEN ARGITALETXEAK

	Argitaletxe pribatuak					EP	% bertikalak, guztira
	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk		
EAE	87	66	0	0	0	21	62,6
NFE	11	2	6	0	0	3	7,9
Ipar EH	7	0	0	7	0	0	5,0
Kataluniako AE	11	0	0	0	11	0	7,9
Madrilgo AE	17	0	0	0	15	2	12,2
Beste AE batzuk	6	0	0	0	6	0	4,3
Guztira	139	68	6	7	32	26	100,0
% horizontalak	100,0	48,9	4,3	5,0	23,0	18,7	

¹ Nafarroako bi argitaletxe talde horretan sartu ditugu, Euskadiko Editoreen Elkartearen barruan daudelako eta EAEko liburuaren barne merkataritzari buruzko txostenean bilduta daudelako haien buruzko datuak. Halaber, hezkuntza erakunde publiko bat ere sartu dugu.

Beste taula honetan zehatzago ikus dezakegu euskarazko lanak argitaratzen dituzten mota bakoitzeko argitaletxeen kopurua, baita Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo zer argitaletzek argitaratzen dituen euskarazko izenburu gehien ere. Egileen eta editoreen datuak ere agertzen dira (ez zaizkio emaitza osoari gehitu).

3. TAULA.- 2010EKO EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO DATU OROKORRAK

Argitaratzaile mota	Probintzia	Eragileak	Izenburuak, guztira	Argitaletxeak
Guztira		163	2.006	
Egileak/editoreak, guztira		31	34	
Egileak/editoreak, guztira	Araba	1	1	
	Gipuzkoa	16	16	
	Bizkaia	11	13	
	Nafarroa	2	3	
	Madril	1	1	
Pribatua, guztira		105	1.815	
Argitaletxe pribatuak, guztira	EAE	65	1.400	
	Araba	5	27	
	Gipuzkoa	30	773	
	Bizkaia	30	600	
	Nafarroa	8	58	Pamiela
				Txalaparta Argitaletxea
				Igela Argitaletxea
	Bartzelona	10	29	Vicens Vives
	Madril	15	303	Grafalco
				Anaya
				Susaeta
				Pearson
	Lleida	1	1	
	Pontevedra	1	1	
	Sevilla	1	1	
	Badajoz	1	12	
Valentzia	1	3		
Malaga	2	6		
Publikoak, guztira		27	157	
Kultura erakunde publikoak		2	2	
	Madril	2	2	
Hezkuntza erakunde publikoak		4	51	
	Gipuzkoa	1	1	
	Bizkaia	3	50	Euskal Herriko Unibertsitatea
Administrazio autonomikoko erakunde ofizialak		4	74	
	Araba	2	63	Euskal Herriko Argitalpen Zerbitzu Zentrala
	Gipuzkoa	1	8	
	Nafarroa	1	3	
Estatuko toki administrazioko erakunde ofizialak		17	30	
	Araba	1	5	Arabako Foru Aldundia
	Gipuzkoa	11	20	Gipuzkoako Foru Aldundia
	Bizkaia	3	3	
	Nafarroa	2	2	

ARGITALPEN PRIBATUA EUSKARAZ

ARGITALPEN PRODUKZIOA

2010. urtean, 1.879 izenburu² kaleratu zituzten euskaraz argialetxe pribatuek, 2009an baino % 0,2 gutxiago, eta 2008an baino % 3,0 gutxiago. Argitaratutako izenburuen % 78,5 EAEko argialetxe pribatuek argitaratu zituzten; % 1,0, Nafarroako Foru Erkidegokoek; % 1,6, Ipar Euskal Herrikoek, eta % 18,9, beste autonomia erkidego batzuetakoek.

2010. urtean, 3.601 mila ale argitaratu zituzten, aurreko urtean baino % 4,3 gutxiago eta 2008an baino % 10,9 gutxiago. Aleen % 88,2 EAEn ekoitzi ziren.

Ekoizpenaren jatorriaren arabera argitalpenaren bilakaera kontuan hartuz gero, 2009. eta 2010. urteen artean izenburuen ekoizpena jaitsi egin zen EAEn (% 5,5) eta NFEen (% 10,0); halaber, aleen ekoizpen kopuruak ere behera egin zuen EAEn (% 5,3), NFEen (% 4,6) eta Ipar Euskal Herrian (% 13,2).

Batez besteko argitaraldia izenburuko 1.916 alekoa izan zen, iazkoa baino 83 ale txikiagoa izenburuko, eta 2008koa baino 170 ale txikiagoa. Eskualdearen arabera, 2010. eta 2009. urteen arteko aldaketarik nabarmenena Ipar Euskal Herrian izan zen, batez besteko argitaraldiak 231 ale egin baitzuen behera.

Hemen beheko taula honetan, euskarazko argitalpenei buruzko datu orokorrak daude adierazita, eta hurrengo orrialdekoetan, azken hiru urteetako bilakaera eta 2009arekiko alderaketa agertzen dira, argitaratutako izenburuak, argitaratutako aleak eta batez besteko argitaraldia kontuan hartuta.

4. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO DATU OROKORRAK

	Argitaratutako izenburuak	%	Argitaratutako aleak	%	Batez besteko argitaraldia
Guztira	1.879	100,0	3.601.146	100,0	1.916
EAE	1.476	78,5	3.175.606	88,2	2.152
NFE	18	1,0	20.137	0,6	1.119
Ipar EH	29	1,6	32.540	0,9	1.107
Beste AE batzuk	356	18,9	372.862	10,4	1.047

² Euskal Herriko Unibertsitatekoak barne.

**5. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA BATEZ
BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA**

	Argitaratutako izenburuak			
	2008	2009	2010	% aldaketa
Guztira	1.937	1.882	1.879	-0,2
EAE	1.563	1.561	1.476	-5,5
NFE	19	20	18	-10,0
Ipar EH	36	27	29	8,9
Beste AE batzuk	319	274	356	29,9

	Argitaratutako aleak (x 1.000)			
	2008	2009	2010	% aldaketa
Guztira	4.041	3.762	3.601	-4,3
EAE	3.596	3.354	3.176	-5,3
NFE	22	21	20	-4,6
Ipar EH	26	38	33	-13,2
Beste AE batzuk	397	350	373	6,5

	Batez besteko argitaraldia			
	2008	2009	2010	Aldea
Guztira	2.086	1.999	1.916	-83
EAE	2.301	2.148	2.152	4
NFE	1.135	1.055	1.119	63
Ipar EH	721	1.389	1.107	-282
Beste AE batzuk	1.246	1.278	1.047	-231

Euskaraz argitaratutako izenburuak, kopuru tartearak

2011n euskaraz argitaratu zuten argitaletxe guztien (139 argitaletxe) % 76,9k 9 izenburu argitaratu zituzten euskaraz. Gutxi gora behera enpresen heren batek (% 34,5) izenburu bakarria argitaratu zuen euskaraz; enpresen % 29,5ek 2 eta 4 izenburu artean atera zituzten euskaraz, eta enpresen % 12,9k 5 eta 9 lan bitarte plazaratu zituzten euskaraz. Euskaraz argitaratzen duten argitaletxeen % 23,1ek argitaratu zituzten 10 izenburu edo gehiago; horien % 78,1 Euskal Autonomia Erkidegoan daude.

6. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

	Guztira (%)	Argitaletxe kopurua, guztira	Argitaletxe pribatuak				Argitaletxe publikoak
			EAE ³	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk	
Guztira	100,0	139	68	6	7	32	26
Izenburu 1	34,5	48	15	2	0	14	17
2-4 izenburu	29,5	41	21	3	6	8	3
5-9 izenburu	12,9	18	7	1	1	4	5
10-49 izenburu	17,3	24	19	0	0	4	1
50 izenburu edo gehiago	5,8	8	6	0	0	2	0

³ Gogoan izan EAeko datuen baitan hezkuntza erakunde publiko bat dagoela.

Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta. Euskadiko argitaletxeak

Aztertu diren 106 argitaletxe pribatuetatik (Ipar Euskal Herrikoak izan ezik) 25ek euskaraz argitaratu zituzten beren lanen % 75etik gora; hain zuzen ere, EAEko 22 argitaletzek, Nafarroako Foru Erkidegoko 2 argitaletzek eta beste autonomia erkidego batzuetako batek. Beraz, **EAEko argitaletxeak dira euskarazko argitaratzaile nagusiak.**

Horrez gainera, argitaletxe pribatuetatik 7k euskaraz argitaratu zituzten lanen % 50 eta % 75 artean (6 EAEkoak). 27 argitaletzek lanen % 25 eta % 49 bitarte argitaratu zituzten euskaraz (21 ziren EAEkoak eta 6 beste autonomia erkidego batzuetakoak). 47 argitaletxe pribatuk, berriz, lanen % 25 baino gutxiago ekoitzi zituzten euskaraz (19 EAEkoak, 24 beste autonomia erkidego batzuetakoak eta 4 NFEkoak).


Erakunde publikoei dagokienez, 26 erakunde publikoetatik 16k euskaraz argitaratu zituzten beren izenburuen % 75etik gora.

7. TAULA.- ARGITALETXE KOPURUA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE.

Argitaletxe kopurua	Guztizko orokorra	Argitaletxe pribatuak*			EP	
		Pribatuak, guztira	EAE	NFE		Beste AE batzuk
Guztira	132	106	68	6	32	26
% 25 baino gutxiago	52	47	19	4	24	5
% 25 - % 49	29	27	21	-	6	2
% 50 - % 75	10	7	6	-	1	3
% 75 baino gehiago	41	25	22	2	1	16

* Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe.

2. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN EHUNEKOA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA



Argitalpen produkzioa, sailen arabera

Atal honetan argitalpen produkzioari buruzko datuak emango ditugu, sailen arabera (argitaratutako izenburuak, argitaratutako aleak, batez besteko argitaraldia eta katalogoko izenburu biziak). Honako hauek dira sail bakoitzaren edukiak:

- Literatura: eleberria, poesia eta antzerkia, bestelako literatura.
- Haur eta gazte literatura: haurrentzako eta gazteentzako literatura eta argitalpenak.
- Unibertsitateaz kanpoko testuak: epigrafe honetan sartzen dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako (LH) testuak eta liburu nahiz material osagarriak.
- Testu zientifiko teknikoak eta unibertsitate testuak: zientzia hutsak, medikuntza, teknika eta zientzia aplikatuak, enpresa ekonomia. Sakontasun eta zorroztasun mailaren arabera, eta norentzat egina den kontuan hartuta: unibertsitateko ikasleak, teknikari adituak eta antzekoak.
- Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak: hainbat diziplina hartzen ditu, besteak beste, soziologia, ekonomia, zuzenbidea, psikologia, erlijioa eta geografia eta historia.
- Liburu praktikoak: etxeko ekonomiari buruzko liburuak, sukaldaritzari buruzkoak, bidaia gidak, mapak, etab.
- Dibulgazioa orokorra: sail horretan sartzen dira *Dibulgazioko beste liburu batzuk* saileko lanak (arte ederrak, musika, kirolak, etab.).
- Hiztegiak eta entziklopediak: ale bakarreko edo bat baino gehiagoko hiztegiak sartzen dira, aurreko edizioan bezala.

Hainbat atal daude izenburu gutxi biltzen dituztenak, eta horregatik, elkartu egin ditugu, taulen eta grafikoaren diseinua errazteko:

- Testu zientifikoak eta gizarte zientziei buruzkoak: Testu zientifikoak eta teknikoak eta unibertsitate testuak saila eta Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak saila elkartu ditugu.
- Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak: Liburu praktikoak eta Dibulgazio orokorra sailak barne hartzen ditu.
- Beste gai batzuk: Hiztegiak eta entziklopediak, eta Bestelakoak sailak elkartu ditugu.

Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera

Argitaletxe pribatuek euskarazko 1.879 izenburu argitaratu zituzten, guztira, 2010ean. Lan horien % 78,5 EAEn plazaratu ziren (1.476 izenburu); 18 izenburu argitaratu zituzten euskaraz NFEen (% 1,0); 29, Ipar Euskal Herrian (% 1,6); eta 356, beste AE batzuetan (% 18,9).

2010ean ere, argitaletxe pribatuek euskaraz argitara emandako izenburu gehienak unibertsitateaz kanpoko testuak izan ziren, zenbateko osoaren ia erdia (% 44,4), hain zuzen. Haur eta gazteentzako lanak, berriz, % 28,3 izan ziren. Bi sail horiek euskaraz argitaratutako izenburu guztien % 72,7 osatu zuten, eta EAEn argitaratutako zenbateko osoaren % 73,1.

EAEko sail horien argitalpenaz gainera, garrantzitsua da beste autonomia erkidego batzuetako sail horien argitalpena (euskaraz argitaratutako izenburu guztien % 74,2); hortaz, esan dezakegu euskaraz argitaratzen duten eta beste autonomia erkidego batzuetan kokatuta dauden argitaletxeek, oro har, testuliburuak eta haurrentzako argitalpenen sailean lan egiten dutela. Hala, ez da harrizkoa euskarazko liburuak merkatuan eta Euskadiko merkatuan sartzeko bi sail horien bitartez saiatzea, batez ere, testuliburuak sailaren bidez, argitaletxe horiek argitaratutako izenburu guztien % 51,7 baitira testuliburuak. Bestalde, haur eta gazteentzako liburuak zenbateko osoaren % 22,5 dira beste autonomia erkidego batzuetan.

8. TAULA.- EUSKARAZKO IZENBURUEN ARGITALPENA, SAILEN ARABERA, 2010EAN. ARGITALETXE PRIBATUAK


	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuek
Guztira (balio absolutuak)	1.879	1.476	18	29	356
Literatura	278	250	5	10	13
<i>Eleberria</i>	219	200	4	7	8
<i>Poesia, antzerkia</i>	20	16	-	2	2
<i>Bestelako literatura</i>	39	34	1	1	2
Haur eta gazte literatura	532	442	1	9	80
Unibertsitateaz kanpoko testuak	834	637	3	9	184
<i>Haur Hezkuntza</i>	162	138	2	2	21
<i>Lehen Hezkuntza</i>	311	240	1	3	67
<i>DBH</i>	186	133	-	-	52
<i>Batzilergoa</i>	77	36	-	-	41
<i>Lanbide Heziketa</i>	8	8	-	-	-
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	90	82	-	5	3
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	62	54	1	-	7
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	112	30	9	1	72
Beste gai batzuk	62	62	-	-	-

* Nafarroako Foru Erkidegoko bi argitaletxe daude EAEn sartuta.

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Literatura	14,8	16,9	26,3	34,0	3,7
<i>Eleberria</i>	11,7	13,5	21,1	23,8	2,4
<i>Poesia, antzerkia</i>	1,1	1,1	-	6,8	0,7
<i>Bestelako literatura</i>	2,0	2,3	5,3	3,4	0,7
Haur eta gazte literatura	28,3	30,0	5,3	30,6	22,4
Unibertsitateaz kanpoko testuak	44,4	43,1	15,8	32,0	51,8
<i>Haur Hezkuntza</i>	8,6	9,3	10,5	5,8	5,9
<i>Lehen Hezkuntza</i>	16,5	16,3	5,3	8,8	18,9
<i>DBH</i>	9,9	9,0	-	-	14,7
<i>Batzilergoa</i>	4,1	2,4	-	-	11,5
<i>Lanbide Heziketa</i>	0,4	0,5	-	-	-
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	4,8	5,6	-	17,3	0,8
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	3,3	3,7	5,3	-	1,9
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	6,0	2,1	47,4	3,4	20,1
Beste gai batzuk	3,3	4,2	-	-	-

Unibertsitateaz kanpoko testuez eta haur eta gazte literaturaz gainera, garrantzi handikoa da Literatura saila: lan guztien % 14,8 argitaratu dira sail horretan.

Literaturan argitaratutako aleen % 78,9 eleberriak izan ziren; % 7,3, poesia eta antzerkia, eta % 13,9, bestelako literatura.



Guztira, 3 izenburu gutxiago argitaratu dira, eta iazko kopurua mantendu da ia-ia. 2009arekin alderatuta, izenburu gehiago argitaratu zituzten Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak sailak (% 3,6), Haur eta gazte literatura sailak (% 1,8) eta Literatura sailak (% 1,5). Unibertsitateaz kanpoko testuak saileko izenburuen argitalpenak behera egin du (% 6,3).


9. TAULA. IZENBURUAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA

	2008		2009		2010		Aldaketa	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%
Sailak, guztira	1.937	100,0	1.882	100,0	1.879	100,0	-0,1	
Literatura	274	14,1	251	13,3	278	14,8	10,9	1,5
Haur eta gazte literatura	474	24,5	499	26,5	532	28,3	6,5	1,8
Unibertsitateaz kanpoko testuak	1.013	52,3	953	50,6	834	44,4	-12,4	-6,3
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	96	5,0	90	4,8	62	3,3	-30,9	-1,5
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	42	2,2	45	2,4	112	6,0	151,0	3,6
Beste gai batzuk	39	2,0	45	2,4	62	3,3	37,6	0,9

2010ean euskaraz argitara emandako 1.879 lanetatik % 78,5 EAEko argitaletxe pribatuek plazaratu zituzten. Argitaletxe horien sail nagusi guztietako argitalpenak zenbateko osoaren batez besteko ehunekoa gainditzen du, Unibertsitateaz kanpoko testuen (% 76,4) eta Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoen (% 27,2) kasuan izan ezik. Beste autonomia erkidego batzuetako izenburuen argitalpenaren ehunekoa, berriz, % 18,9koa izan zen; kopuru hori gainditzen dute, hain justu, Unibertsitateaz kanpoko testuak (% 22,1) eta Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak (% 63,9) sailek, sail bakoitzaren argitalpen osoari dagokionez.

3. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	78,5	1,0	1,6	18,9



Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera

2010ean, argialetxe pribatuek 3.601.146 ale eman zituzten argitara euskaraz. Horien % 88,2 EAEn plazaratu zituzten; % 0,6, NFEen; % 0,9, Ipar Euskal Herrian, eta % 10,3, beste autonomia erkidego batzuetan.

Euskaraz ekoiztutako aleen gehiengoa unibertsitateaz kanpoko testuak izan ziren, hots, ale guztien % 57,3. Sail horri gertutik jarraitzen dio Haur eta gazte literatura sailak, zenbateko osoaren % 26,4 hartzen baitu. Bi sail horietako lanek osatzen dute euskaraz argitaratutako ale guztien % 83,7. Bi sail horien batura jatorrien arabera alderatuta, sail horietan ale gehien ekoiztu zituen eremua EAE eta beste autonomia erkidego batzuen eremua izan zen; izan ere, bi sailen artean, bi eremu horietan ekoiztutako aleen % 84,4 hartze baitute EAEn eta % 81,5 beste autonomia erkidego batzuetan.


10. TAULA.- 2010EAN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILEN ARABERA (MILAKOTAN). ARGIALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (balio absolutuak) (X 1.000)	3.601	3.176	20	33	373
Literatura	294	278	6	7	3
<i>Eleberria</i>	230	217	5	6	2
<i>Poesia, antzerkia</i>	14	13	-	1	-
<i>Bestelako literatura</i>	50	47	1	1	1
Haur eta gazte literatura	949	854	1	10	83
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.064	1.826	4	14	221
<i>Haur Hezkuntza</i>	540	515	2	2	21
<i>Lehen Hezkuntza</i>	838	726	1	5	106
<i>DBH</i>	379	324	-	-	55
<i>Batxilergoa</i>	91	55	-	-	36
<i>Lanbide Heziketa</i>	7	7	-	-	-
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	209	200	-	7	3
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	56	54	1	-	1
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	143	68	8	2	65
Beste gai batzuk	96	96	-	-	-

	Guztira	Euskadi	Nafarroa	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Literatura	8,2	8,8	28,0	21,5	0,9
<i>Eleberria</i>	6,4	6,8	23,8	17,5	0,6
<i>Poesia, antzerkia</i>	0,4	0,4	-	2,0	-
<i>Bestelako literatura</i>	1,4	1,5	4,3	2,0	0,3
Haur eta gazte literatura	26,4	26,9	6,5	32,0	22,3
Unibertsitateaz kanpoko testuak	57,3	57,5	19,3	41,5	59,2
<i>Haur Hezkuntza</i>	15,0	16,2	11,9	7,0	5,5
<i>Lehen Hezkuntza</i>	23,3	22,9	7,4	14,5	28,4
<i>DBH</i>	10,5	10,2	-	-	14,9
<i>Batzilergoa</i>	2,5	1,7	-	-	9,6
<i>Lanbide Heziketa</i>	0,2	0,2	-	-	0,0
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	5,8	6,3	-	20,0	0,8
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1,6	1,7	4,9	-	0,2
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	4,0	2,1	41,3	5,0	17,4
Beste gai batzuk	2,7	3,0	-	-	-

Unibertsitateaz kanpoko testuez eta haur eta gazte literaturaz gainera, garrantziko saila da literaturarena, ale guztien % 8,2 hartu zuena, 2010ean.

Literatura saileko aleei dagokienez, eleberriarri dagozkio % 78,2; poesia eta antzerkiari, % 4,8, eta beste literatura batzuei, % 17,0.



2009. eta 2010. urteen artean argitaratutako aleen kopuruak % 4,3 egin zuen behera, zenbateko osoari dagokionez. Sailen arabera, testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak (% 48,5), Unibertsitateaz kanpoko testuak (% 7,8) eta Haur eta gazte literatura (% 0,9) sailek egin dute behera. Bestalde, Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak (% 48,5) eta Literatura (% 2,1) sailek gora egin dute. Beste gai batzuk sailean argitaratutako aleek % 34,1 egin dute gora.


II. TAULA.- ALEAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA

Argitaratutako aleak (x 1.000)	2008		2009		2010		Aldaketa	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%
Sailak, guztira	4.041	100,0	3.762	100,0	3.601	100,0	-4,3	
Literatura	367	9,1	288	7,6	294	8,2	2,1	0,5
Haur eta gazte literatura	978	24,2	958	25,5	949	26,4	-0,9	0,9
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.370	58,6	2.239	59,5	2.064	57,3	-7,8	-2,2
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	124	3,1	108	2,9	56	1,6	-48,5	-1,3
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	129	3,2	98	2,6	143	4,0	45,6	1,4
Beste gai batzuk	72	1,8	71	1,9	96	2,7	34,1	0,8

2010ean euskaraz argitaratutako 3.601.146 aleen % 88,2 EAEko argitaletxeetakoak dira. Euskadiko euskaraz argitalpenetan, sail guztiek izan zuten batez besteko ehuneko hori baino handiagoa, Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak sailak izan ezik; sail horren ehunekoa % 47,5 izan zen. Sail horri dagokionez, beste autonomia erkidego batzuek ale guztien % 45,5 ekoizten dute.

4. GRAFIKOA.- ARGITALETXE PRIBATUEK SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	88,2	0,6	0,9	10,4



Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera

Batez besteko euskarazko argitaraldia izenburuko 1.916 alekoa izan zen, 2010ean. Jatorriaren arabera, batez besteko argitaraldiak hauek izan ziren: 2.152 alekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxe pribatuetan; 1.119 alekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxe pribatuetan; 1.107 alekoa, Ipar Euskal Herriko argitaletxeetan, eta 1.047 alekoa, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeetan.

Argitaraldi handienak unibertsitateaz kanpoko testuen liburuak izan ziren (2.475 ale izenburuko); sail horrek izenburuen % 44,4 eta aleen % 57,3 bildu zituen. Unibertsitateaz kanpoko testuen atzetik, Haur eta gazte literatura da batez besteko argitaraldi handiena duen hurrengo saila (1.784 ale izenburuko); sail horrek izenburuen % 28,3 eta aleen % 26,4 bildu zituen.

12. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2010EAN. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Batez besteko argitaraldia	1.916	2.152	1.119	1.107	1.047
Literatura	1.058	1.114	1.130	700	245
<i>Eleberria</i>	1.048	1.087	1.198	814	246
<i>Poesia, antzerkia</i>	698	852	-	326	-
<i>Bestelako literatura</i>	1.301	1.390	856	651	488
Haur eta gazte literatura	1.784	1.932	1.300	1.157	1.043
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.475	2.865	1.294	1.437	1.197
<i>Haur Hezkuntza</i>	3.324	3.734	1.200	1.340	986
<i>Lehen Hezkuntza</i>	2.696	3.023	1.481	1.815	1.579
<i>DBH</i>	2.040	2.426	-	-	1.057
<i>Batzilergoa</i>	1.181	1.530	-	-	874
<i>Lanbide Heziketa</i>	881	881	-	-	-
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	2.314	2.427	-	1.276	979
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	899	998	-	-	102
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	1.272	2.223	924	1.626	906
Beste gai batzuk	1.540	1.540	-	-	-

Hurrengo taulan, batez besteko argitaraldiak azken hiru urteetan izan duen bilakaeraren datuak bildu ditugu. Batez besteko argitaraldi osoak beheranzko joera motela izan du azken hiru urteetan; 2010ean, 2009an baino 83 ale gutxiagokoa eta 2008an baino 170 ale gutxiagokoa izan zen.

Sail guztietako batez besteko argitaraldiek behera egin dute, Unibertsitateaz kanpoko testuenak izan ezik; horrek batez besteko argitaraldi osoari eragin dio. Nabarmentzekoak dira Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak sailean (921 ale gutxiago izenburuko) eta Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak sailean (307 ale gutxiago) izandako gutxitzeak.

Unibertsitateaz kanpoko testuena izan zen batez besteko argitaraldi handixeagoa izan zuen sail bakarra, eta argitaratutako izenburuen kopuruak (% 12,4) aleenak (% 2,2) baino zertxobait gehiago egin zuelako behera gertatu zen hori.

13. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA

	2008	2009	2010	Aldea
Guztira	2.086	1.999	1.916	-83
Literatura	1.339	1.148	1.058	-91
Haur eta gazte literatura	2.065	1.919	1.784	-135
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.339	2.350	2.475	124
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.298	1.206	899	-307
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	3.116	2.193	1.272	-921
Beste gai batzuk	1.862	1.580	1.540	-40

Katalogoko izenburuak

Euskarazko izenburu bizen katalogoan 12.396 izenburu daude. Horiei dagokienez, % 80,7 EAEko argitaletxe pribatuek argitaratu zituzten; % 2,4, Nafarroako Foru Erkidegokoek; % 1,9, Ipar Euskal Herrikoek, eta % 15,0, beste autonomia erkidego batzuetakoek.

14. TAULA.- KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, 2010EAN. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira	12.396	10.003	301	240	1.853
% horizontala	100,0	80,7	2,4	1,9	15,0
Argitaratutako izenburuak	1.880	1.476	18	29	356
Katalogoko izenburuak / argitaratutako izenburuak	6,6	6,8	16,7	8,2	5,2

2010ean, katalogoko izenburu guztien eta euskaraz argitaratutako izenburuen arteko erlazioa 6,6 izenburu bizikoa izan zen argitaratutako izenburu bakoitzeko, zenbateko osoari dagokionez. Eremuen arabera, 6,8koa izan zen EAEko argitaletxe pribatuetan; 16,7koa, Nafarroako Foru Erkidegokoetan; 8,2koa, Ipar Euskal Herriko argitaletxeetan, eta 5,2koa, beste autonomia erkidego batzuetakoetan.

Katalogoko izenburuak, sailen arabera

Hurrengo orrialdeko tauletan, katalogoko euskarazko izenburuak agertzen dira, sailen arabera.

Euskarazko katalogoan, unibertsitateaz kanpoko testuak (zenbateko osoaren % 38,4) eta haur eta gazte literaturakoak (zenbateko osoaren % 31,5) nabarmentzen dira, alde handiz. Bi sailen artean, euskarazko katalogoaren % 69,9 batu zuten.

Bi sail horiek euskarazko katalogoaren guztizkoaren barruan izan zuten ehunekoia nabarmenagoa izan zen beste autonomia erkidego batzuetan, euskarazko katalogoaren % 93,8 hartu baitzuten. Aurreko urteetan bezala, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ehuneko handiagoa osatu zuten Literatura saileko izenburu bizenek, euskaraz duten ekoizpenaren % 50etik gorakoa, hain zuzen ere.

15. TAULA.- KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2010EAN. ARGIALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (balio absolutuak)	12.396	10.003	301	240	1.854
Literatura	2.099	1.746	165	127	62
<i>Eleberria</i>	1.510	1.228	124	106	52
<i>Poesia, antzerkia</i>	263	249	3	9	2
<i>Bestelako literatura</i>	325	269	38	12	7
Haur eta gazte literatura	3.911	3.315	47	53	496
Unibertsitateaz kanpoko testuak	4.766	3.471	36	17	1.242
<i>Haur Hezkuntza</i>	681	564	5	5	107
<i>Lehen Hezkuntza</i>	1.739	1.088	11	12	628
<i>DBH</i>	1.347	936	15	-	396
<i>Batxilergoa</i>	378	323	5	-	50
<i>Lanbide Heziketa</i>	39	39	-	-	-
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	583	521	-	-	61
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.099	1.036	25	-	38
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	264	208	29	12	15
Beste gai batzuk	259	228	-	31	-

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (balio absolutuak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Literatura	16,9	17,5	54,7	52,9	3,3
<i>Eleberria</i>	12,2	12,3	41,3	44,2	2,8
<i>Poesia, antzerkia</i>	2,1	2,5	1,0	3,8	0,1
<i>Bestelako literatura</i>	2,6	2,7	12,5	5,0	0,4
Haur eta gazte literatura	31,5	33,1	15,5	22,1	26,8
Unibertsitateaz kanpoko testuak	38,4	34,7	12,0	7,1	67,0
<i>Haur Hezkuntza</i>	5,5	5,6	1,7	2,1	5,8
<i>Lehen Hezkuntza</i>	14,0	10,9	3,7	5,0	33,9
<i>DBH</i>	10,9	9,4	5,0	-	21,4
<i>Batxilergoa</i>	3,0	3,2	1,7	-	2,7
<i>Lanbide Heziketa</i>	0,3	0,4	-	-	-
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	4,7	5,2	-	-	3,3
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	8,9	10,4	8,2	-	2,0
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2,1	2,1	9,6	5,0	0,8
Beste gai batzuk	2,1	2,3	-	12,9	-

Hurrengo taulan, izenburu biziak azken hiru urteetan izandako bilakaera ikus daiteke, sailen arabera, baita 2009. urtearekiko aldaketa ere.

Sailen araberako izenburu biziak guztizkoak gorako joera izan du azken urteetan, eta % 3,0 hazi da 2009. eta 2010. urteen artean. Sail guztien artean, honako hauek izan dira gorakadarik handiena izan duten sailak: Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak (% 15,4), Haur eta gazte literatura (% 9,5) eta Literatura (% 6,1). Unibertsitateaz kanpoko testuen katalogoak soilik egin du behera (% 2,4).

16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2009. URTEAREKIKO ALDAKETA


	2008		2009		2010		Aldaketa	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%
Sailak, guztira	11.795	100,0	12.031	100,0	12.396	100,0	3,0	
Literatura	1.895	16,1	1.980	16,5	2.099	16,9	6,1	0,5
Haur eta gazte literatura	3.512	29,8	3.572	29,7	3.911	31,5	9,5	1,9
Unibertsitateaz kanpoko testuak	4.728	40,1	4.909	40,8	4.765	38,5	-2,9	-2,4
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.138	9,6	1.050	8,7	1.099	8,9	4,6	0,2
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	234	2,0	229	1,9	264	2,1	15,4	0,2
Beste gai batzuk	287	2,4	290	2,4	259	2,1	-10,9	-0,3

Argialetxe pribatuetako katalogoen euskarazko izenburuen % 80,7 EAEn argitaratu zituzten.

Sailen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratutako izenburu bizen ehunekoa guztizko kopurua baino handiagoa izan zen, bi kasutan izan ezik. Batetik, Unibertsitateaz kanpoko testuak sailaren kasuan; izan ere, sail horretan, beste autonomia erkidego batzuetako argialetxeei zegozkien izenburuen % 26,0. Bestetik, berriz, Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak sailaren kasuan, NFEko argialetxeei baitzegozkien izenburuen % 11,0.

5. GRAFIKOA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILEN ARABERA, ARGIALETXE PRIBATUETAN. JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	80,7	2,4	1,9	15,0



MERKATURATZEA

2010EKO FAKTURAZIOA

2010ean, fakturazioa 36.361 mila eurokoa izan zen guztira, hau da, iazkoa baino % 6,9 txikiagoa. Fakturazio guztiaren % 87,5 EAeko argialetxe pribatuen merkataritza jarduerari dagokio.

17. TAULA.- EUSKRAZKO FAKTURAZIOA 2010EAN. ARGIALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (milaka euro)	36.361	31.823	255	196	4.087
% bertikalak	100,0	87,5	0,7	0,5	11,3

